

Eskuari helduta ibili zen matxinsaltoa



- Baina, zer egiten duzu hemen zoro horrek! Eutsiozu neure eskuari! Arin!

Pentsatzeko astirik izan barik txapeldun haren atzetik ikusi nuen neure burua ihesean. Haritz mardul baten azpian uzkurtuta nengoen, bonbek eta tiro hotsek beldurtuta, eta nondik agertu zen ez nekiela, eskutik heldu eta airean eraman ninduen.

Artean 7 urteko ume mokoa baino ez nintzen, txiki txikitatik izaera bizikoa, ipurtarina. Egun hartan amaren esanari kasu egin gabe, "Ez zaitez larregi urrundu basurde baten arrastoari jarraika ditzosozko leku hartara heldu nintzen. Konturatu orduko tiro eta bonbez jositako mendi magal hartan nengoen setiatuta.

Gorputzari itsatsita zuen ½ertseak gizon sendoa zela erakusten zuen, bizkarralde zabala eta gerri estua, 25 bat urtekoa.

Larruzko tirantedun gerriko batek eusten zien praka zabalei. Atzetik zaldi boteretsua ematen zuen, mokor landu eta izter gihartsuek korrika zein salto egiten zuten lurralde malkartsu hartan. Heltzen zidan esku latz eta indartsuak agerian uzten zuen eskulanetan aritua zela. Bizkarrean eskegita zuen fusila borroka etenezinean zebilen, ½antzita zuen motxila behin eta berriro astinduz.

Egia esan, ez dakit zelan erreparatu nion hainbeste xehetasuni, korrikaldiaren eraginez hotzak eta haizeak negar eragiten zidaten eta ondorioz ikusmena